DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
DSS2016.EU

EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
CAPITALE EUROPÉENNE DE LA CULTURE
EUROPEAN CAPITAL OF CULTURE

# 1516-2016

## «Bake-itunak»



*1516-2016.Bake-itunak*en irudiak.

BAKEA
PAZ
PAIX
PEACE

EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA


ANTOLATZAILEAK

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA

San Telmo Museoa

kulturunea

BABESLE-OROKORRA

Telefónica

LAGUNTZAILEAK

Gobierno de Flandes

EU Japan fest

TABAKALERA

ERAKUNDE BAZKIDEAK

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua

ORAIN GIPUZKOA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE
SECRETARÍA DE ESTADO DE CULTURA

donostiakultura.com

SAN TELMO MUSEOA

PATRONO PRIBATUAK

eitb
EL DIARIO VASCO
kutxa

ENPRESA ONGILEAK

berria
SER
GARA
naiz:

*1516-2016. Bake-itunak* Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburuaren *Bake-ituna* proiektuaren erakusketa nagusia da. *Bake-ituna* San Telmo Museoarekin eta Koldo Mitxelena Kulturunearekin batera dago antolatua; Telefónicaren babesarekin eta EU-Japan Fest-en eta Flandriako Gobernuaren laguntzarekin sortu da, eta honako hauen lankidetzarekin: Baionako Euskal Museoa, DIDAM, Baionako Udala, Artium Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoa, Fundació Antoni Tàpies, Jorge Oteiza Fundazio-Museoa, Bilboko Arte Ederren Museoa, Zumalakarregi Museoa, Laboratorium Museoa, Salamancako Unibertsitatearen VIII. Mendeurrena eta Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa.

## Informazio praktikoa

Erakusketaren inaugurazioa: **ekainak 17**

Ikusleentzat irekiera: **ekainak 18**

Itxiera: **2016ko urriak 2**

**San Telmo Museoa** (Plaza Zuloaga 1, Donostia)

Ordutegia: Astearte-igande: 10.00-20.00, astelehena itxita.

Prezioa: 6€, tarifa murriztua3 €, dohako sarrera asteartero.

**Koldo Mitxelena Kulturunea** (Urdaneta, 9, Donostia)

Ordutegia: Astearte-igande: 10.00-20.00, astelehena itxita.

Dohako sarrera.

# *Aurkibidea*


Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburua .... 5

*Bake-ituna* Donostia 2016 programaren barnean .... 7

Zer da *Bake-ituna*? .... 9

Laburpena .... 11

Proiektuaren egitura .... 12

Proiektuaren egutegia .... 15

*1516-2016. Bake-itunak*, erakusketa nagusia .... 17

Jendeen Nazioarteko Zuzenbidea, funtsezkoa kontakizunean .... 18

Museoa, bakearen irudikapen-forma ezberdinak kontatzen dituen elementu gisa .... 19

Metodologia .... 21

Pieza esanguratsuak .... 22

Mediazioa .... 25

Ikerketa-kasu pedagogikoak .... 26

Foroak .... 28

Jarduerak .... 28

Bisita gidatuak .... 29

Argitalpenak .... 31

Fitxa .... 32

Kredituak .... 33

# Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburua

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren (DSS2016EU) helburua kulturak bizikidetza hobea eraikitzeko tresna gisa duen balioa aitortzea da. Horretarako, 2016ko urtarriletik abendura, publiko guztientzako 400 kultur-proposamen izango dira.

Donostia 2016 proiektua partaidetza-prozesu zabal, ireki eta plural baten emaitza da, euren ideiak, ezagutzak eta esperientziak ekarri dituzten eta oraindik ekartzen ari diren hainbat pertsonaren inplikazioaren ondorio.

«Herritarren energia-olatuak - bizikidetzarako kultura» kontzeptuarekin, Europa transformatzen laguntzen duen nazioarteko kultur-ekitaldi bat garatu da. Helburua da DSS2016EU herritarrek beren sormenetik eta Europarekin sarean bultzatutako jardueren etengabeko fluxua izatea da. Fluxu hori 2016an iristen da bere une gorenera, eta kultur-sisteman efektu transformatzailea eragitea du xede.

Ekimen horiek guztiak hiriburutzaren programazioan banatzeko, itsas-terminologia erabili da batez ere:

- Itsasargiak: Hiriburutzaren programazioaren ardatzak (Bizitzaren Itsasargia, Ahotsen Itsasargia eta Bakearen Itsasargia).
- Kaiak: lan egiteko modu berrietan sakontzen dute, eta eremu zehatzetan espezializatuta daude: arte garaikidea, herritarren partaidetza, teknologia berriak, bitartekaritza eta arte-egonaldiak, bai eta hizkuntza-aniztasuna ere (Pagadi, Bestelab, Hirikia, 284+, Hazitegiak).
- Enbaxadak: hiru enbaxada ibiltari dabiltza Europatik, eratzen duen kultur-mosaiko handia aldarrikatzeko (Biziz, Europa Transit eta Tosta).
- Elkarrizketak: Donostia 2016 hiriaren kultur-agenda ofizialarekin elkarrizketan jartzeko diseinatutako ildoa.
- Energia-olatuak: ekimen horren bidez, partikularrek eta irabazi-asmorik gabeko elkarteek aurkeztutako proiektuak eta kultur-programak laguntzen dira diruz.

*Bake-ituna*, beste alde batetik, programazioko itsasargiek lantzen dituzten hainbat aspektu ukitzen baditu ere, Bakearen itsasargiaren barnean sartzen da berez. Bakearen eta errespetuaren balioak zabaltzea du helburu, euskal gizartea bere arazoak elkarrizketaren bidez konpontzeko bidean dagoen testuinguru batean hain zuzen. Gainera, bizikidetza inoiz baino egungoagoa den anbizioa da Europan.

# *Bake-ituna*
## DSS2016EU programaren barnean

*Bake-ituna* Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburuaren balioak islatzeko ispilu gisa pentsatutako proiektua da.

Hiriburutzaren kultur programa pentsatzen hasi zen unetik, proiektuak toki zentrala izan du. Orduan erabaki zen bakearekin edo, alderantziz, gerrarekin eta indarkeria-forma anitzekin erlazionatutako gaiak arte-irudien indarretik ere landu behar zirela.

Horrela, *Bake-ituna* Bakearen Itsasargiaren esparruan modu naturalean txertatzen bada ere, Bizitzaren Itsasargiko beste gai batzuei ere eragiten die, hala nola genero-indarkeriari eta bazterketari, eta literaturak, musikak, zinemak edo herri-kulturak proiektua osatzen duten heinean, Ahotsen Itsasargiari ere eragiten dio, noski.

Helburua bidea da eta prozesua azken ekitaldia bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa da (izan ere, hori izan zen DSS2016EU hautagaitzaren arrakastaren premisa nagusietako bat); ideia horrekin bat eginez, *Bake-ituna* ez da kontzebitu ospakizunaren urterako gertaera ikusgarri gisa, baizik eta garapen konplexu gisa. Garapen hori 2013an abiarazi zen, Donostiaren setioaren, sutearen eta berreraikuntzaren urteurrena ospatu zen urtean, eta 2016ra arte luzatuko da, orduan aurkeztuko baitira tresna teorikoen (ikerkuntza, pentsamendua eta eztabaida), sinbolikoen (irudikapen estetikoak, erakusketak), praktikoen eta enpirikoen (ondare berriaren eta jardueren ekoizpena), parte-hartzaileen (kolaborazioari eta lankidetzari irekia), hezigarrien (laborategi pedagogikoak) eta komunikatiboen (edukien plataforma digitala, argitalpenak) azken emaitzak.

Santiago Eraso

# Zer da *Bake-ituna*?

*Bake-ituna* Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburutzaren proiektu bat da, bakearen eta Bakearen –letra txikiz eta larriz– irudikapenaren inguruko hainbat erakusketak, laborategik, argitalpenek eta proiektuk osatua. Guztion iruditerian eta Arteak eta Zuzenbideak oinordetzan utzi dizkiguten forma politikoetan gordetzen diren eraikuntzek osatzen dute. Garrantzitsua da aldea nabarmentzea: proiektu honen helburua ez da, berriro ere, Gerra eta Bakea bikotea aztertzea, baizik eta bakeari erreparatzea eta, zehazki, bakeak historian zehar ezagutu dituen forma eta irudikapen konplexuei, edozein gisa ulertzen delarik bakea: Pax inperiala, Garaipenaren adierazpena, batzuen eta besteen Adiskidetze-prozesua, bortxakeria amaitzea, gozamena edo bizipoza.

*Bake-itunak* bere buruari galdetzen dio, hasteko, ea bitarteko egokia den erakusketa bat bakeaz eta haren irudikapenez hitz egiteko. Museoa, artearen gaur egungo ikuskeraren jatorrian dagoen tresna fundazionala, Louvre Museoarekin batera agertu zen gisa horretan, herriak aristokraziaren eta kleroaren aurka lortutako garaipenaren ospakizun gisa. Kulturaren demokratizaziorako gune horrek, dena den, handituz jarraitu zuen, garaipen napoleonikoei eta gerra-harrapakinei esker. Museoa, erakusketa eta ikusizko propaganda, bakeak bere irudikapenak azalerazteko darabiltzan tenplu berriak dira. Horrela, bada, proiektuak irudikapen horien berrikusketa kritiko bat proposatzen du. Kritikoa, bere esanahi zehatzean: laburbiltzen eta irakurketa arretatsua egiten duena. Gaur egun, adibidez, askok jotzen dute Guggenheim Bilbaoren inaugurazioa terrorismoaren indarkeriaren amaiera Euskadira ekarri duen garai berriaren ikurtzat.

*Bake-itunak* Francisco de Vitoriaren obra eta Bakearen Iberiar Eskola ditu abiapuntu. Izan ere, Jendeen Nazioarteko Zuzenbidearen iturritzat jotzen dira, eta hartatik sortzen dira gerra eta indarkeria amaitzeko eta gatazkak konpontzeko aukera politikoak. Arabiarren aurkako gerrak eta Amerikaren kolonizazioa esperientzia erabakigarriak izan ziren corpus filosofiko horretan, baita gure erakusketa-proiektuetarako ere. Tomas Mororen *Utopia* argitaratu zenetik (1516) gaur egunera arte, proiektuak bakearen askotariko ahotsak eta formak aztertzen ditu, ikusmira zabal bat hedatzearekin batera irudikapen horien konplexutasunean eta anbiguotasunean sakontzeko asmoz.

*Bake-ituna*ren erakusketa-gune nagusia Donostian dago, San Telmo Museoaren eta Koldo Mitxelena Kulturunearen artean, *1516-2016. Bake-itunak*en bitartez; baina eremu zabal batera hedatzen da, Bilbotik Baionaraino, Altzuzatik Gasteizeraino. Era berean, kapitulu eta gonbidapen ezberdinak eskaintzen ditu. *Ikerketa-kasuek* –komisario ezberdin bat erakusketa bakoitzeko– euskal lurraldean gertatutako bake-itunak aztertzen dituzte: Pirinioetako Bakea, Baionako Abdikazioa, Bergarako Besarkada... *Aldiriak* proiektuan, geure muga kontzeptualak gainditzeko gonbita egiten zaie gaur egungo zenbait artistari. *Aliantzak* proiektuaren inguruan beste lan txikiago batzuk hedatu dira. Proiektu horretan bitartekaritzaren arkeologia oso bat egiten da, publikoen eta irudikapen artistiko eta politikoen arteko harremanak antolatzen dituen forma gisa ulertuta arkeologia. *Barruan*, bestalde, proiektuaren muin politiko eta poetikoa da; F.X. artxiboak burutu zuen. Museo eta arte-gune ugariren lankidetza ere azpimarratu nahi genuke, haien laguntzari esker egin ahal izan baitugu beraiek zaintzen dituzten irudikapenen inguruko azterketa: Louvre museoa, Prado museoa, MNAC, MNCARS, MACBA, Pompidou zentroa, Artium, Bilboko Arte Ederren Museoa, Baionako Euskal Museoa, Oteiza Fundazioa edo Zumalakarregi Museoa.

*Bake-ituna* 2013an abiatu zen, San Telmo museoan eta Donostiako Untzi Museoan eginiko *1813. Donostiako setioa, sutea eta berreraikuntza* erakusketa nagusiaren inguruan. *Ikerketa-kasu* gisa, *Décor, A Conquest by Marcel Broodthaers* aurkeztu zuen, gure proiektuko tresna ezin garrantzitsuagoa, Bakearen Etxean. Eta Bulegoa z/b, Oier Etxeberria eta Maialen Lujanbio gonbidatu zituen, Xabier Erkiziarekin, *Aldiriak*-en lan egitera. Argitalpen batek aurkezpen horiek guztiak jasoko ditu, bai eta erakusketen, jardueren eta lanen ziklo berri osoa ere.

Pedro G. Romero
*Bake-ituna* proiektuaren komisario-kuradorea

# *Laburpena*

**Santiago Erasoren ideia batetik abiatuz eta Pedro G. Romero komisariotzat duen DSS2016EUren proiektua da *Bake-ituna*.**

» *Bake-ituna* proiektuak bakeak artearen historian, kulturan eta zuzenbidean izan dituen irudikapenak lantzen ditu. Proiektuaren epizentroa Donostian badago ere, 10 herrialde eta hiri baino gehiagora hedatuko da maiatzaren 26tik 2017 arte.

» Hainbat gauza hartzen ditu abiapuntutzat: Francisco de Vitoriaren irudi enblematikoa, zeinak Europako Nazioarteko Zuzenbidearen lehen eskola –Bakearen Iberiar Eskola edo Salamancako Eskola– inspiratu baitzuen, XVI. mendean; «heretikoen» aurkako gerrak; moriskoen eta juduen kanporatzea; eta Amerikaren kolonizazioa. Eta aurreko mendetik eta egunera arte izandako gerren ondorengo bake-hitzarmenen zikloarekin amaitzen da.

» *Bake-ituna*k bakeak izandako forma eta irudikapen konplexuak esploratzen ditu, eta haren irudikapenen eta esanahien bidez bidaiatzen da historian zehar.

» Nazioarteko proiektu gisa planteatzen da; bertan, tokiko zein Europako eragile eta erakunde esanguratsuek parte hartzen dute, hasi Louvre Museotik Jorge Oteiza Fundazio Museora.

» *1516-2016. Bake Itunak* erakusketa nagusiaz gain, proiektuak gertaera historikoei buruzko zazpi erakusketa (*ikerketa-kasuak*), ikerketa monografiko bat eta artista garaikideen zazpi ekoizpen (*Aldiriak*) hartuko ditu barne, 10 herrialde eta hiri baino gehiagotan. Era berean, hainbat argitalpen izango ditu.

» Proiektuaren ekoizpenerako, komisariotza-taldea, artista sorta zabala eta artean zein historian espezializatutako aholkularien talde bat izan dira.

» Proposamenak plan pedagogiko bat du, Tabakalera Kultura Garaikideko Nazioarteko Zentroarekin Koldo Mitxelena Kulturunea, San Telmo Museoaren eta DSS2016EUren bitartekaritza-sailekin lankidetzan garatua.

» Lau ikerketa-urteren ondoren (2013an, dagoeneko, *1813. Donostiaren setioa, sutea eta berreraikuntza* erakusketa ardatz nagusi izan zuen proiektuaren lehen zatia aurkeztu zen), «Bakearen» irudiaren irudikapenari buruzko material sorta ezezagun bat ekoitziko da.

# *Proiektuaren egitura*

*Bake-ituna* bi kapitulutan banatzen da. Lehena, *1813. Donostiaren setioa, sutea eta berreraikuntza* 2013an izan zen. Helburua Donostiako hiriaren suntsipenaren eta ondoko berreraikuntzaren bigarren mendeurrena ospatzea zen.

Horrela, 1813ko abuztuaren 31ko gertaeren oroitzapenaren inguruan, hausnarketa zabalago bat jorratu zen, Frantziako Iraultzatik gerra napoleonikoen amaierara arteko tartea barne hartzen zuen garaiari buruz. Aldi horretan, irudikapen artistikoko forma berriak inauguratu ziren, historiaren kontzeptu modernoa garatu zen, eta komunikazioa espazio publikoaren jabe bihurtu zen.

Bigarrena 2016an egingo da, eta erakusketa nagusia, zazpi ikerketa-kasu (gertaera historikoei buruzko erakusketak), ikerketa monografiko bat, zazpi *Aldiriak* (ekoizpen garaikideak), bai eta programa pedagogikoa eta hainbat argitalpen ere hartzen ditu barne.

Francisco de Vitoriaren irudi enblematikoarekin hasten da –egun Bakearen Iberiar Eskola izenez ezaguna den Salamancako Eskolaren inspiratzailea–, eta aurreko mendeko gerren ondoren eta egunera arte izandako bake-hitzarmenen zikloarekin amaitzen da.

## *1. kapitulua* *–2013–*

### Erakusketa nagusia:

*1813. Donostiaren setioa, sutea eta berreraikuntza* / San Telmo Museoa eta Donostiako Untzi Museoa.

### Erakusketa osagarriak:

Hitzaurrea: *1793. Konbentzio Gerra* / Baionako Euskal Museoa.

Epilogoa: *1823. San Luisen Ehun Mila Semeak* / Ormaiztegiko Zumalakarregi Museoa.

### Aldiriak:

*Hegi, Egia, Egiak*. Maialen Lujanbio eta Xabier Erkizia

*Polifonías del tiempo*. Bulegoa z/b.

*Pure Data (hamar)*. Oier Etxeberria.

Era berean, mintegiak, hitzaldiak, tailerrak eta hainbat argitalpen hartu zituen barne proiektuak.

## *2.kapitulua* *–2016-2017–*

### Erakusketa nagusia:

*1516-2016. Bake-itunak*. San Telmo Museoa eta Koldo Mitxelena Kulturunea

### Ikerketa-kasuak eta ikerketa monografikoa:

1. *1513. Urtubiako Bakeetatik. Geografia eta paisaia*. Jorge Oteiza Fundazio Museoa, Altzuza
2. *1660. Pirinioetako Bakearekin. Politika eta familia. Baionako Euskal Museoa*
3. *1808. Baionako abdikazioaren alde/* Apaingarria eta delitua. Le DIDAM
4. *1839. Bergarako Besarkadaren aurrean. Keinua eta interpretazioa*. Zumalakarregi Museoa / Laboratorium Museoa
5. *1930. Donostiako Hitzarmenean. Historia eta sinkopea*. Ganbara, Koldo Mitxelena Kulturunea
6. *1937. Gernikari buruz. Gerra eta* civitas*a.* Bilboko Arte Ederren Museoa
7. *1989. Aljerreko elkarrizketen ondoren. Delirioa eta su-etena. Artium / Fundació Antoni Tàpies*
8. *1936. José María Sert eta Nazioen Liga. Salamancako Unibertsitatea/Kapelak*. San Telmo Museoa

### Aldiriak:

1. *Le recyclage moderne des enfants sacrés.* Mitra Farahani.
2. *Tug of War*. Juan Luis Moraza.
3. *...-oh*pé*ra–muet-...* Alejandra Riera.
4. *El veneno en tu maquinaria*. Archivo Caminante/Eduardo Molinari.
5. *Makina eskua da*. Ibon Aranberri.
6. *Konposizioa eta moldaketak*. Asier Mendizabal.
7. *The Devil Opens a Night School to Teach the Secrets of Success and Failure*. Ines Doujak& John Barker.

# «Bake-ituna»

## Ikerketa-kasuak

1513
Urtubiako Bakeetatik. Geografia eta paisaia
-
Gillermo Zuaznabar
OTEIZA FUNDAZIO MUSEOA
MAI 26 - IRA 18 2016

1660
Pirinioetako Bakearekin. Politika eta familia
-
Javier Portús, Olivier Ribeton
BAIONAKO EUSKAL MUSEOA
EKA 3 - IRA 25 2016

1808
Baionako abdikazioaren alde. Apaingarria eta delitua
-
Olivier Ribeton, José Ramón Ais
LE DIDAM BAIONA
EKA 3 - IRA 25 2016

1839
Bergarako Besarkadaren aurrean. Keinua eta interpretazioa
-
Mikel Alberdi
ZUMALAKARREGI MUSEOA ORMAIZTEGI
2016 EKA 9 - ABU 23
-
LABORATORIUM MUSEOA BERGARA
ABU 31 - AZA 1 2016

1930
Donostiako Hitzarmenean. Historia eta sinkopea
-
Isabel de Naverán
GANBARA KMK DONOSTIA
EKA10 - IRA 4 2016

1937
Gernikari buruz. Gerra eta *civitas-a*
-
Valentin Roma
BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA
2016 IRA 30 - 2017 URT 9

1989
Aljerreko elkarrizketen ondoren. Delirioa eta su-etena.
-
Carles Guerra
ARTIUM GAZTEIZ
ABU 11 - AZA 1 2016
FUNDACIÓ ANTONI TÀPIES
2016 AZA 11 - 2017 URT 15

1936
Josep María Sert eta Nazioen Liga
-
Patricia Molins
SALAMANCAKO UNIBERTSITATEA
URRI 28 - ABE 18 2016
KAPELAK SAN TELMO MUSEOA
2017

## 1516-2016 Bake-itunak

*San Telmo Museoa — Koldo Mitxelena Kulturunea*

2016 EKA 18 - 2016 URR 02
DONOSTIA

## Aldiriak

Makina eskua da
IBON ARANBERRI
-
Nader Koochaki

El veneno en tu maquinaria
ARCHIVO CAMINANTE/ EDUARDO MOLINARI
-
Oier Etxeberria

Konposizioa eta moldaketak
ASIER MENDIZABAL
-
Aizpea Mendi

Tug of War
JUAN LUIS MORAZA
-
Imanol Mujika

...-o*h*péra–muet-...
ALEJANDRA RIERA
-
Leire Vergara

The Devil Opens a Nightschool to Teach the Secrets of Success and Failure
INES DOUJAK
JOHN BARKER
-
Ixiar Rozas

Le recyclage moderne des enfants sacrés
MITRA FARAHANI
-
Marion Cruza

## Bitartekaritza

PEDAGOGIA PROGRAMA

## Argitalpenak

WEBGUNEA

LIBURU-KATALOGOA

GIDAK ETA LIBURUXKAK

# Proiektuaren egutegia

Months shown: MAI, EKA, UZT, ABU, IRA, URR, AZA, ABE

## Bake-ituna

| | |
|---|---|
| Erakusketa nagusia. *1516-2016. Bake-itunak / San Telmo Museoa eta KMK* | EKA 18 - URR 2 |

## Ikerketa-kasuak

| | |
|---|---|
| *1513. Urtubiako Bakeetatik. Geografia eta paisaia* / Oteiza Fundazio Museoa | MAI 26 - IRA 18 |
| *1660. Pirinioetako Bakearekin. Politika eta familia* / Baionako Euskal Museoa | EKA 3 - IRA 25 |
| *1808. Baionako abdikazioaren alde. Apaingarria eta delitua* / Le DIDAM, Baiona | EKA 3 - IRA 25 |
| *1839. Bergarako Besarkadaren aurrean. Keinua eta interpretazioa.* Zumalakarregi Museoa | EKA 9 - AGO 23 |
| *1839. Bergarako Besarkadaren aurrean. Keinua eta interpretazioa.* Laboratorium Museoa | ABU 31 - AZA 1 |
| *1930. Donostiako Hitzarmenean. Historia eta sinkopea* / Ganbara, Koldo Mitxelena Kulturunea. | EKA 10 - IRA 4 |
| *1937. Gernikari buruz. Gerra eta* civitasa / Bilboko Arte Ederren Museoa | IRA 30 - URT 9 |
| *1989. Aljerreko elkarrizketen ondoren. Delirioa eta su-etena* / Artium | ABU 11 - AZA 1 |
| *1989. Aljerreko elkarrizketen ondoren. Delirioa eta su-etena/ Fundació Antoni Tàpies* | AZA 11- URT 15 |
| *1936. José María Sert eta Nazioen Liga* / Salamancako Unibertsitatea | URRI 28 - ABEN 18 |
| *1936. José María Sert eta Nazioen Liga. Kapelak* / San Telmo Museoa | 2017 |

## Aldiriak

| | |
|---|---|
| Mitra Farahani. *Le recyclage moderne des enfants sacrés.* | IRA 10 - URR 16 |
| Juan Luis Moraza. *Tug of War.* | IRA 1 - 3 |
| Alejandra Riera ...-oh*péra–muet-*... | IRA 23 - 24 |
| Archivo Caminante/Eduardo Molinari. *El veneno en tu maquinaria.* | EKA 25 - UZT 23 |
| Ibon Aranberri. *Makina eskua da.* | EKA 5 - IRA 16 |
| Asier Mendizabal. *Konposizioa eta moldaketak.* | URR 1 - 31 |
| Ines Doujak & John Barker. *The Devil Opens a Night School to Teach the Secrets of Success and Failure.* | UZT 16 |

# *1516-2016. Bake-itunak,* erakusketa nagusia

Erakusketa nagusia San Telmo Museoaren eta Koldo Mitxelena Kulturunearen artean dago banatuta eta horien aretoetan nazioarteko 21 museoren funtsetatik ekarritako lanak jasotzen ditu, artista ezagunenak, bakeari, nazioarteko hitzarmenei eta itunei, desmilitarizazioari, gerra ezari eta indarkeria ezari buruzkoak. Honako museo hauek aritu dira lankidetzan, besteak beste: Louvre museoa, Centre Pompidou, Museo Nacional Centro de Arte Reína Sofía, Museo Nacional del Prado, Bilboko Arte Ederren Museoa eta Artium, Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoa.

Garrantzi handiko artisten 600 pieza baino gehiago erakusten ditu, hala nola Goya, Rubens, Murillo, Ribera, Picasso, Le Corbusier, Maruja Mallo, Elena Asins, Alice Creischer, Nancy Spero eta Sophie Ristelhueber-enak.

Piezak bederatzi argumentu-eremutan daude banatuta, Bakearen Iberiar Eskolak bake-itunak banatzen zituen gaietan, hain zuzen: lurraldeak, historia, enblemak, milizia, hildakoak, biztanleria, ekonomia, armak eta itunak. Bakearen Iberiar Eskolarentzat garrantzi handia izan zuten Islamaren aurkako gerrek eta Amerikaren kolonizazioak –gaurkotasun handiko gaiak biak ala biak–, eta nabaria da garrantzi hori erakusketa osoan zehar. Era berean, historian zehar existitu diren eta *Bake-ituna* proiektuaren antzeko edukiak landu dituzten museoen eta erakusketen gelei keinu bat egingo zaie. Arabiarren aurkako gerrak eta Amerikaren kolonizazioa esperientzia erabakigarriak izan ziren Bakearen Iberiar Eskolarentzat, baita erakusketa-proiekturako ere.

Erakusketa horrek ere pedagogiari lotutako ariketa eta praktika historikoak erakusten ditu: hasi asimilazio kulturalerako jesuiten ariketetatik («indiarren dotrinak» deitutakoak) eta Yoko Onok desarmerako eta bakerako proposatutako ekintza performatibo kolektiboetaraino. Pieza horiek bitartekaritza artistikoaren diseinua eragiten duen ikerkuntza gauzatzeko balio dute.

## *Jendeen Nazioarteko Zuzenbidea, funtsezkoa kontakizunean*

Erakusketaren kontakizuna egun Bakearen Iberiar Eskola izenez ezagutzen den Salamancako Eskolarekin sortzen da. Bertan, Francisco de Vitoriak legegintzaren ikuspegitik egiten die aurre Espainiako Erreinuan sortzen diren arazo moralei; izan ere, horrek gatazkak ditu arabiarren erreinuarekin eta Amerikaren konkistarekin.

Horrek Jendeen Nazioarteko Zuzenbidea eragiten du, eta hori funtsezko tresna da bake-itunetarako. Bakearen Iberiar Eskolak itunak banatzeko erabilitako aurkibideek erakusketa kapitulutan banatzen dute, eta horiei hitzaurrea eta epilogoa gehitu zaie.

## Banaketa

| **Egoitzen araberako banaketa** | |
|---|---|
| San Telmo Museoa | Koldo Mitxelena Kulturunea |
| Hitzaurrea<br>Lurraldeak<br>Historia<br>Ikurrak<br>Milizia<br>Hildakoak | Hildakoak bis<br>Biztanleria<br>Ekonomia<br>Armak<br>Tratatuak<br>Epilogoa |

| **Lurraldeak** | **Historia** | **Ikurrak** |
|---|---|---|
| • Lurraldearen ikuskera militarra eta geografiaren, mapen eta irudikapenen, ibilbideen zein mapa politikoen asmaketa.<br>• Fortifikazioak, eraikuntza militarrak, trintxerak, barrikadak, eraikuntza zaharren erabilera zibila.<br>• Arkitekturak, makina militarrak, gerra-makinak. | • Historiaren alegoriak, sinboloak, irudipenak.<br>• Historia, gerraren eta bakearen, teologiaren eta teleologiaren kateamendua bezala.<br>• Liburuak, utopiak, paradisuak. | • Banderak, estandarteak, bandera zuriak.<br>• Uniformeak, militarrak bizitza zibilean, dandismoa.<br>• Ezkutuak, armarriak, militarren erretratuak sinbolo gisa (usoa, kurriloa, hippy, bakearen pipa, ez nuke) |
| **Milizia** | **Hildakoak** | **Populazioa** |
| • Soldadu poeta, soldadu konbertitua, zalditik erortzea.<br>• Bizitza militarra bizitza zibilean. Atzeguardia, propaganda militarra bakearen inguruan. | • Hilerriak, hilobiak, soldadu ezezaguna, oroitzapenezko monumentuak.<br>• Ehorzketak, zeremonia liturgiko militarrak, musika militarra.<br>• Biktima zibilak. | • Irudikapen patriotikoak, juramentuak, nazioa.<br>• Soldadutza, miliziak, errekrutatze militarrak, eragozleak, bakezaleak.<br>• Jaiak, desfileak, ospakizunak, parada zibilak, garaipenak. |
| **Ekonomia** | **Armak** | **Tratatuak** |
| • Txanponak, urrean edo zilarrean egindako irudikapenak, dirua, billeteak eta grabatuak.<br>• Museoak, altxor nazionalak, gerrako harrapakina. | • Irudikapenak, erabilera zibilak eta etxetiarrak, arte-metaforak armekin.<br>• Armak erabiltezin bihurtzea, vanitas.<br>• Kamuflajea, begirada militarra (tiro-behatxuloak, airekoa, infografia). | • Itunak, elkarteak, bandoak, aldarrikapenak, kartelak.<br>• Berezko bake-itunak, testuak eta irudikapenak.<br>• Bakearen irudikapenak. |

## *Museoa, bakearen irudikapen-forma ezberdinak kontatzen dituen elementu gisa*

Erakusketa nagusiak museoaren ideia hartu du patroi gisa. Museoa egun arte gisa ulertzen duguna hartzen duen paradigma bezala, eta bakearen irudikapenerako sortzen den espazio gisa.

Ibilbide osoan zehar, galdera bat nabarmentzen da: zergatik funtzionatzen dute bakeari buruzko erakusketak eta gizarte zibilaren tenpluak diren museoek ongizatearen, adostasunaren eta bakearen espazio gisa. Galdera horrek ahalbidetzen du irudikapen horien konplexutasunean sakontzea, horietako hainbat seinaleren eta sinboloren anbiguotasuna aurkitzea eta, askotan, segurtasunaren, gizarte-ongizatearen eta ugaritasunaren, bere biktimak eta kostuak ere dituen mundu zoriontsuaren eta baketsuaren irudikapenek ezkutatzen dutena jakitea; izan ere, bakea ez da gure gizarteen helburu utopikoa soilik, gerraren beste aldea ere bada.

Eredua den lehen museo moderno bezala, Louvre Museoa Frantzian sortu zen, Frantziako herrialdearen aberastasunaren ospakizun gisa. Iraultzaren indarkeriaren ondoren iristen den bakea ospatzen duen arte-erakusketa handia. Horrela, museoa eta erakusketak gizakiak bakea ulertzeko hainbat moduak kontatzen dituzten espazioak bihurtzen dira.

Hori kontuan izanda, erakusketa 21 museo kolaboratzaileren 21 lanekin osatu da eta, horrekin, kontakizun nagusia eraiki da. Kontakizun horri 16 museotako edo erakusketako (gelak) historiografia txikiak gehitu zaizkio; horiek beti daude harremanetan 21 museo kolaboratzaileek utzitako piezekin.

Horrela, lehen gela Amerikako esperientziari buruzkoa da, zehazki, *Tata Vasco*, Vasco de Quirogari buruzkoa; bertan, Michoacaneko artisautza erakusten da, edo *Los Libros Plúmbeos* lanari buruzkoa; bertan, bake-imajinarioa berreraikitzeko eta bizikidetza ahalbidetzeko Granadako moriskoek egindako saiakera jasotzen da. *Palestinarekiko Solidaritatea Adierazteko Nazioarteko Arte Erakusketarekin* amaitzen da; hori Ekialde Ertaineko egungo gatazkari eta arteak naziorik gabeko estatu bat aitortzeko azaldutako solidaritateari buruzkoa da.

## Gelak

*Tata Vasco* (*Tata Vasco*, *un poema*, Ernesto Cardenal-Michoacan-eko Artisautzak, 1540-2011). Indigenek Vasco de Quirogari emandako izena. Michoacaneko lehen gotzainak eskolen sorkuntza bultzatu zuen; aldi berean, horiek nekazaritzako eta artisautzako lanak ikasteko irakaskuntza--zentro bezala balio zuten.

*Los Libros Plúmbeos (*Granadako Sakromonteko Abadiako Liburu Plumbeoak, 1595-2000). Granadako Sakromontean agertutako berunezko 22 xafla borobil, marrazki eta testu ulertezinekin grabatuak.

*Salón de Reinos (*Madrilgo Casón de Buen Retiro-ko Erreinuen Gela, XVII. mendea). Velázquez-ek 1630ean Felipe VI.arentzat diseinatua, Pax Austriae deitutakoak oroitzen ditu. Velázquez-ek Francisco de Zurbarán-en eta Juan Bautista Maíno-ren koadroekin diseinatutako hormetako baten berreraikuntza. Frantziako Iraultzaren aurretik irudikatutako garaipen-bakeak sinbolizatzen ditu.

*Versaillesko Ispiluen Galeria (*Versaillesko Jauregiko Ispiluen Galeria eta Mandatarien Eskailera, 1678-1919). *P*ax Borbonica oroitzen du eta gertaera garrantzitsuen eszenatokia da, hala nola Marie Antoinetteren ezkontza, Alemaniar Inperioaren aldarrikapena 1871n edo Versaillesko Itunaren sinadura 1919an, I. Mundu Gerra amaituta.

*Jean de Bloch Museoa (*Internationale Kriegs-und Friedensmuseum *Jan Bloch* in Lucerna, 1902-1919). Jean de Bloch-ek Luzernan (Suitza) sortua, museoa bera 1902an hil ondoren ireki zuten.

*Otto Neurath Museoa (*Vienako *Otto Neurath* Gizarte eta Ekonomia Museoa, 1926-1933). Otto Neurath filosofoak eta Gerd Arntz ilustratzaileak «International System of Typographic Picture Education» Isotype-a garatu zuten. Hori seinale bisualen sistema ordenatua da, eta horren helburua ahozko hizkuntzaren anbiguotasunak eta mugaketak gainditzea da, komunikazio pedagogikoa errazteko. Ordenagailuetan, munduko bankuen zein militarren txostenetan existitzen diren irudikapen ikonikoak proiektu horretatik datoz; hori lehenengo aldiz aplikatu zuten *Vienako* Gizarte eta *Ekonomia* Museoan.

*Holokaustoaren Memoriala (Holokaustoaren Memoriala*-Auschwitz-Birkenau State Museum, 1947). Kulturaren adierazgarri izateaz gain, krimenaren frogak diren irudien eta materialen bilduma eta artxiboa.

*Anti-Krieg-Museum (*Berlingo Ernst Fiedrich-en Anti-Krieg-Museum, 1925). Ernst Fiedrich bakezaleak Berlinen sortua, naziek suntsitu zuten 1933an eta berriro ireki zuten 1982an.

*Museo del Pueblo (Museo del Pueblo*, Espainiako II. Errepublikaren Misio Pedagogikoena, 1931-1936). Misio Pedagogikoek II. Errepublikan garatutako museo ibiltariaren proiektua. 1931n inauguratu zuten eta bere jarduera eten egin zen Espainiako Gerra Zibila hasi zenean.

*La Vérité sur les colonies (La Vérité sur les colonies,* Parc des Buttes-Chaumont, Frantziako Alderdi Komunista, Lanaren Konfederakunde Nagusia eta *Le Surréalisme au service de la révolution*, Paris, 1931). Frantziako Sindikatuen Zentralak, Alderdi Komunistak, Liga Antiinperialistak eta talde surrealistako intelektualek antolatutako kontra-erakusketa, objektu primitiboak eta inperialismoaren aurkako muntadurak barne hartzen dituena.

*Porrajmos-en Museoa (Porajmos, El holocausto contra los Roma y Sinti*, Alemaniako Sinti eta Roma Dokumentazio eta Ikerkuntza Zentroa, Heildelberg, 1997). Izen horrekin ezagutzen da holokaustoa ijitoen hizkuntzan, erromanieran.

*The Family of Man (The Family of Man*, Edward Steichen's Museum, MoMA, 1955). Edward Steichen-en erakusketa New Yorkeko Arte Modernoaren Museoan; horrek 68 herrialdetako 273 argazkilariren 502 argazki biltzen ditu.

*Hiroshima Peace Memorial Museum (*Hiroshima Peace Memorial Museum, Hiroshimako Bakearen Parkea, 1955). Oroitzapenerako toki bezala sortua, biktimen esperientziaren objektuak eta kontakizunak jasotzen ditu; horien artean, 8:15 ordua adierazten duten ordularien bilduma, orduan lehertu baizen bonba.

*Musée d'Art Moderne, Département des Aigles, de Marcel Broodthaers (Musée d'Art Moderne, Département des Aigles, Secction des Figures,* Marcel Broodthaers, 1968-1972) 1968an sortua, eta Broodthaers-ek berak itxia, 1972an. Museo erakundeari buruzko hausnarketa kritikoa, eta «kritika instituzionala» deitutakoaren oinarria.

*Del Tercer Mundo (Del Tercer Mundo,* Kubako Pabilioia, Habanako Kultura Batzarra, 1968). Habanako Kuba Pabilioian izandako erakusketa.

*Palestinarekiko Solidaritatea Adierazteko Nazioarteko Arte Erakusketa (*Palestinarekiko Solidaritatea Adierazteko Nazioarteko Arte Erakusketa, PAEren Informazio Bateratuaren Bulegoa –Palestinaren Askapenerako Erakundea–, Beirut, 1978). Beiruten (Libano) inauguratu zuten, erbesteko museo baten bildumaren hazia izatea helburu.

# *Metodologia*

*Bake-itunaren* ikerkuntza-proiektuan, artearen historiari lotutako tresna batzuk erabili dira. Jarraian, bereizgarrienak nabarmentzen dira:

**Mikroistorioak:** kontakizun historikoaren xehetasun eta argumentu zehatzei jartzen zaie arreta, horren garaian proiektatzeko modu gisa, aurrekari historikoak eta etorkizuneko azterketak barne hartuta. Nagusiki, *1813. Donostiaren setioa, sutea eta berreraikuntza* 1. Kapituluan horretara jotzen bada ere, *Bake-itunaren* 2. Kapituluak ere eragina du.

**Irudi dialektikoa:** batez ere San Telmo Museoan ikusi ahal izango den irudien alderaketa; izan ere, ibilbide linealak piezak eta ideiak alderatzea ahalbidetzen die bi hormei.

**Atlasa:** euren artean erlazionatutako irudi multzoa, naturalki zabaltzen direnak, Koldo Mitxelena Kulturunearen espazioan.

